Orkestra
LEHIAKORTASUNERAKO EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

LABURPEN EXEKUTIBOA
ORKESTRAKO KOADERNOAK
04/2023
ISSN 2340-7638

ONGIZATEA HELBURU DUEN LEHIAKORTASUNA: DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN GIZARTE ETA LANERAKO INKLUSIORAKO EUSKAL EREDUAREN EKARPENA

Patricia Canto Farachala
Mercedes Oleaga
Etorne Ugalde
Jaime Menéndez-en laguntzarekin

2023

Laburpen executiboa. Orkestrako koadernoak, zk. 04/2023

© Autoreak

© Lehiakortasunerako Euskal Institutoa –Deusto Fundazioa

www.orkestra.deusto.es/eu

Eskerrak

Txosten hau «Desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lanerako inklusirorako euskal ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko ongizate inklusiboa eta jasangarria helburu duen lehiakortasunari egiten dion ekarpena» ikerketa proiektuaren emaitza da. Proiektuak bi fase izan ditu. Lehenengoan, Orkestrako eta EHLABEko lantalde batek ikerketa-ekintza metodologia erabili du, Ereduak aurrean dituen erronkei buruzko gogoeta egiteko eta erronka horiek lantzen lagunduko duten ekintzak identifikatzeko. Bigarren fasean, erronka eta ekintza horiek Eredua garatzen den ekosisteman esanguratsuak diren entitateetako ordezkariekin kontrastatu dira.

Egileek eskertu egin nahi dituzte EHLABEk eta ikuspegi taldean parte hartu zuten pertsonek egindako ekarpenak. Era berean, bere gain hartzen dute Txosten honetan, oharkabean, ager daitekeen edozein akats edo ez aipatzeren erantzukizuna.

Laburpen exekutiboa

Desgaitasuna duten Pertsonentzako Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte eta Lanerako Inklusio Eredua (Eredua, aurrerantzean) duela 40 urte baino gehiago hasi zen garatzen. Eredu horren ezaugarri bereizgarrietako bat da eragile publiko eta pribatuen sare batek lankidetzan egindako lanaren emaitza dela, enpresek, lehiakorrak izateaz gain, ongizate inklusibo eta jasangarria ezaugarri duten gizarteak sortzen lagun dezaketela sinetsita. Ereduaren erdi-erdian EHLABE-Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkartea dago, desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lanerako inklusioa sustatzen duten irabazi asmorik gabeko entitateen euskal elkartea. EHLABEk erakundeekin eta gizarte eragileekin solaskidetza sustatzen eta garatzen du, elkartea osatzen duten entitateekin lankidetzan[1]. Desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasuna eta haien gizarte inklusioa hobetzea du helburu.

Sorrerako helburuari erantzunez, EHLABEk hausnarketa prozesu bat bultzatu du, Orkestrak bideratua, funtsezko lau galderaren inguruan: (i) zein dira Ereduaren elementu bereziak? (ii) zer erronka eta aukera ondorioztatzen dira «inklusio olatutik»[2]? (iii) nola laguntzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko ongizate inklusibo eta jasangarria helburu duen lehiakortasunari? eta (iv) zer erronka eta aukera planteatzen dizkiote Ereduari trantsizio jasangarriek?

(i) Zein dira Ereduaren elementu bereziak?

- Eredu malgua eta berritzailea da, desgaitasuna duten pertsonak ahalduntzera bideratua. Haien bizi kalitatea eta enplegagarritasuna hobetzea du helburu, prestakuntzaren, lanerako zerbitzuaren, orientazioaren eta sektore askotako enplegu inklusiboaren bidez, sareko lanean eta lankidetza publiko-pribatuan oinarrituta.
- Balio, erreminta, jarduera eta baliabideen sistema partekatua da, Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen inklusioa bultzatzeko.
- Benetako eta kalitatezko lana sortzen du, laguntza premia handienak dituzten pertsonei lehentasuna ematen diena.
- Banakako gizarte eta laneratze ibilbideak diseinatzen ditu, pertsonen gaitasunei garrantzia ematen dietenak, enplegagarritasun zerbitzuez eta lan inklusiboko baliabideez baliatuta.

(ii) Zer erronka eta aukera ondorioztatzen dira «inklusio olatutik» tokian bertan, eskualdean eta Europan?

- Eredua hobeto komunikatzea, haren kokapena hobetzeko.
- Desgaitasunaren inguruan hizkuntza partekatua eraikitzen laguntzea.
- Desgaitasunari buruzko eztabaida politikoan eragitea.

---

[1]Apnabi, Bidaideak, Bizgorre, Rafael Marí Zentroa, Eragintza, Gallarreta, Gureak, Indesa, KL, Lantegi Batuak, Raep, Ranzari, Sutargi, Usoa.

[2] Inklusioak tokiko, eskualdeko eta mundu globaleko diskurtsoetan hartu duen garrantziari egiten dio aipamen.

(iii) Nola laguntzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko ongizate inklusiboa eta jasangarria helburu duen lehiakortasunari?

- Gizarteari oro har, desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei, bezeroei eta hornitzaileei sortzen dien balioaren bidez. 2022an:
    - EHLABEko entitateek gizartearentzat sortu duten Gizarte Balio Integratua 794 milioi eurokoa izan zen (7 euro jasotako dirulaguntza publikoko euro bakoitzeko);
    - desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei sortutako balioa 90 milioi eurokoa izan zen;
    - enpresa ekimenek 395 milioi euroko balioa sortu zieten bezeroei eta hornitzaileei.
- Industria eta zerbitzu sektoreetako enpresa jardueren bidez, eta euskal enpresa sarea osatzen duten balio kateen parte izanik.
- Berrikuntzan eta ekintzailetzan oinarritutako erreminta kutxa bat garatuta, beste kolektibo batzuetara ere zabal daitekeena. Kutxa horrek desgaitasunen bat edukitzeagatik, gizarteko parte aktibo izateko oztopoak dituzten pertsonen gizarte eta lanerako inklusioaren alde 40 urte baino gehiagoko ibilbidetik ateratako ikaskuntzak biltzen ditu.
- Interes ekonomiko eta sozial orokorra bilatuta, gizarte ekonomiaren printzipioekin bat eginik: (i) pertsonak eta gizarte edo ingurumen helburuak mozkinaren aurretik jartzea; (ii) irabazi eta soberakin gehienak berrinbertitzea kideen/erabiltzaileen edo, oro har, gizartearen aldeko jarduerak egiteko; eta (iii) gobernantza demokratikoa edo parte hartzailea.

(iv) Zer erronka eta aukera planteatzen dizkiote Ereduari trantsizio jasangarriek?

Euskal Autonomia Erkidegoko ongizatea helburu duen lehiakortasunari laguntzen jarraitzeko, beharrezkoa da 1. taulan jasotzen diren trantsizio jasangarrietako erronkak eta aukerak elkarlanean lantzea. Elementu komuna denez, Ereduak lagundu behar du hiru trantsizioak bidezkoak, inklusiboak eta ikuspegi integralekoak izaten.

1. taula. Eredua trantsizio jasangarrien aurrean

	Energia eta ingurumen trantsizioa	**Trantsizio teknologikoa eta digitala**	**Gizarte eta osasun trantsizioa**
Jakintza eta prestakuntza aukerak	● Jakintza eskaintzea, hiru trantsizioak bidezkoak, inklusiboak eta ikuspegi integralekoak izan daitezen ● Ereduak desgaitasuna duten pertsonen gizarte eta lanerako inklusioari buruz dituen jakiteak eta esperientzia lagungarriak izan daitezke prestakuntza egokitzeko, hiru trantsizioetatik eratorriko diren behar berriei erantzun diezaien.		
Teknologia aukerak	● Energia trantsizioa bideratzea, lehiakortasuna eta, bide batez, ereduaren jasangarritasuna bermatzeko, besteak beste, araudia edo ekoizpen kostuak landuta. ● Teknologia distiratsuen[3] erabilera erraztea desgaitasuna duten pertsonen enplegua bultzatzeko nitxo berri horietan, produktibitatea hobetzeaz gainera.	● Bere trantsizio teknologiko-digitala egitea, lehiakortasuna bermatzeko eta, horrela, baita ereduaren jasangarritasuna ere. ● Baliabide teknologiko-digital berriak optimizatzea gaitasunetan egon daitezkeen desberdintasunak murrizteko lanean jarraitzeko: gaitasunak indartzea, lanpostuaren eskakizunak murriztea eta, horrela, pertsona bakoitzaren garapen eta balio ekarpen handiagoa bermatzea.	---
Enplegagarritasunerako aukerak	● Trantsizio honekin lotuta, gorabidean doazen sektore berrietan funtsezko eragilea bihurtzea, desgaitasuna duten pertsonentzako enplegu aukera berriak sortzeko: - ekonomia zirkularra; - mugikortasun jasangarria.	● Desgaitasuna duten pertsonentzako lan aukera berriak sortzea gorabidean doazen sektore digitaletan (adibidez, digitalizazioa, roboten entrenamenduak...) eta paketeriaren eta banaketaren sektorea indartzea.	● Gaixotasun mentala duten pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko ekintzak bultzatzea. ● Sektore soziosanitarioan eragile garrantzitsu gisa duen rola finkatzea eta garatzea, gaur egungo egoitza zerbitzuen lehiakortasuna sendotuz eta eskari berrietara egokituz, baita etxean ere.

[3] Produktibitatean hobekuntza nabarmenak dakartzatenak, ekoizpen prozesuaren kostuak asko jaitsiz (Acemoglu eta Restrepo, 2019).

			• Gizarte eta lan dinamika batean txertatzen direnean, pertsona horien gastu medikoak eta ospitaleratzeak murrizten direla frogatzea. • Jakiteak eta esperientzia ("erreminta kutxa") erronka berrietara eramatea, horien artean, zahartzea eta lan merkatuan belaunaldi ordezkapen beharra edo bazterketa arriskuan dauden pertsonak.
Aukera sektorialak			• Desgaitasuna duten pertsonen erronka demografikoa eta zaintzaren erronka lantzea. • Sektore elkartuetan parte hartze handiagoa bultzatzea, besteak beste, elikaduran.
Bideratze aukerak	EHLABEk, erakunde dinamizatzaile gisa, elkartutako entitateen artean hausnarketa bultza dezake, identifikatutako erronken eta aukeren inguruko hizkuntza eta agenda partekatua sortzeko eta, horietatik abiatuta, ekintza zehatzak abian jartzeko. Administrazio publikoak bidelagun izaten jarraitzea funtsezkoa da hausnarketa horretan.		

Koaderno honek jorratzen dituen lau galderen erantzunek Ereduari dagokion ekosistema osatzen duten eragile nagusiekiko elkarrizketa elika dezakete. Elkarrizketa horren bidez eraiki daiteke hizkuntza eta ikuspegi partekatu bat eta, horretatik abiatuta, ekintzarako agenda bat. Horrek lagunduko du Ereduak Euskal Autonomia Erkidegoan lehiakortasun inklusibo eta jasangarria lortzen egin dezakeen ekarpena ikustarazten eta lurraldean bizi diren pertsona guztientzako ongizatea lortzea helburu izango duen lurralde estrategian eragile garrantzitsu gisa kokatzen.

Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orkestra.deusto.es